



udal-1-batzarre  
E-14.03.73

Unai Rekondo Pérez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ormaiztegiko Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile honek, zera

### ZIURTATZEN DUT:

Udal batzarreak 2014ko apirilaren 14ean eginiko Ezohiko Bilkuran, besteak beste, onartu zuen jarraiko letraz-letrazko erabakia:

#### HAMARGARREN PUNTUA:

ORMAIZTEGIKO PLAN OROKORREKO 12 ZELAETA EREMUKO XEHETASUN AZTERLANA, IRIZAR S. COOP.ek SUSTATUA, BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Udal idazkari-kontuhartzaileak akordio proposamena irakurri du.

Ondoren, udalkideak akordio proposamena bozkatzeari ekin diote, aho batez, Udalbatzarrak honako erabaki hau

### ONARTU DU:

Alkatetzaren 2014ko otsailaren 10eko R-14/025 ebazpenez, Ormaiztegiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 12 Zelaeta eremuko Xehetasun Azterketa, Irizar S. Coop.-ek sustatua, hasieraz onartu zen.

Halaber, xehetasun azterlana jendaurrean jarri zen hogeit egunez, aztertua izan ahal zedin eta bere kasuan zegozkion alegazioak aurkeztu ahal zitezen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2014.02.18-ko datan dagokion iragarkia argitaratuz eta halaber 2014.02.13-ko datan lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkari batean dagokion iragarkia argitaratuz.

Kontutan harturik aipaturiko jendaurreko epean ez dela inongo alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia ikusirik,

### ERABAKITZEN DA:

#### LEHENENGO:

Ormaiztegiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 12 Zelaeta eremuko Xehetasun Azterketa, Irizar S. Coop.-ek sustatua, behin betikoz onartzea.

...//...







Udal1-batzarre  
E-14.03.74

...//...

**BIGARREN:**

Xehetasun azterlana igortzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroan sar dadin.

**HIRUGARREN:**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespena emateko erabakiak eta, hirigintzako arauak, dagokion hirigintza-plana aurreko paragrafoetan aipatutako erregistroan jaso dela adieraziz.

**LAUGARREN:**

Behin betiko onarpenaren akordioa lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitara ematea.

**BOSGARREN:**

Akordio hau Irizar S. Coop.-i jakinaraztea.

---

**Eta horrela agerian gera dadin eta dagokion ondorio egokietarako, ziurtagiri hau sinatzen dut, ROFeko 206 art.an (azaroaren 28ko 2568/1986 E.D.) xedatzen denaren arabera, hau da, akta onartzerakoan finkatzen denaren kalterik gabe, Presidentearen oniritziz, Ormaiztegi, bi mila eta hamalauko apirilaren hamabostean.**

**O. I.**

**Alkate-Lehendakaria,**

